

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN GIZARTE HAUTEMATEA

(2022ko martxoa)
Prensa oharra

SARRERA

Euskadiko gizarteak zientzia eta teknologia nola hautematen dituen aztertzea izan da ikerlan honen ardatza. Landa-lana 2022ko otsailaren 7tik 11ra bitartean egin zen.

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO JARRERAK

Gai zientifiko-teknologikoei buruzko interes zabala informazio-maila baino handiagoa da

Biztanleriaren %64k adierazten du dezente edo asko interesatzen zaizkiola zientzia eta teknologia, 3,7ko batez besteko interesarekin, 1etik 5erako eskalan. Herritarrentzat medikuntza eta osasuna (4,3) eta, ingurumena eta ekologia (4,2) baino interes gutxiagoko gaia da. Zientziarekiko eta teknologiarekiko interesa handitu egin da 2017tik, beste bi gai horiei buruzkoa bezala.

Biztanleriaren herenak adierazi du zientziari eta teknologiari buruz dezente edo asko informatuta dagoela. Zientzia eta teknologia (2,9), informazio-mailari dagokionez, ingurumenaren eta ekologiaren (3,4) eta, medikuntza eta osasunaren (3,2) atzetik dago. 2017arekin alderatuta, zientzia eta teknologia, eta medikuntza eta osasun gaiei buruzko informazio-maila pixka bat jaitsi dira.

Nolanahi ere, herritarrek aipatutako gaiei buruz duten informazio-maila gai bakoitzari buruz duten interesaren azpitik dago. Zientzia eta teknologiaren kasuan, diferentziala -0,8 puntukoa da.

Zientzia eta teknologia gaiekiko interesa handiagoa da Euskadin Espainian baino (3,7 eta 3,1, hurrenez hurren) eta, neurri txikiagoan, baita informazio-maila ere (2,9 eta 2,8, hurrenez hurren).

Herritarrek zientzia eta teknologiari buruz duten pertzepzioa positiboa da; izan ere, gehienek uste dute gazteek zientzia eta teknologian duten interesa funtsezkoa dela etorkizuneko gure oparotasunerako (%87) eta zientzia eta teknologia gure osasuna hobetzen ari direla (%82). Gainera, %41ek uste dute zientzia eta teknologiak edozein arazo konpon dezaketela. Azkenik, %30ek uste dute bere eguneroko bizitzan ez dela garrantzitsua zientziaz jakitea eta %26k zientzia eta teknologia gure gizartearentzako arrisku iturri direla (2017an %21 ziren).

Euskadiko biztanleek Europar Batasuneko biztanleen batezbestekoaren antzeko babesa eman diete baieztapen horiei.

ALFABETATZE ZIENTIFIKO OROKORRA

Biztanleria banatuta dago teknologia berriak erabiltzeko gaitasunari dagokionez

Herritarren ustez, oro har, euren ezagutza zientifiko-teknikoen maila baxua da; galdetutako pertsonen %70ek gutxi edo batere ez dakitela adierazi dute, eta %29k, berriz, nahikoa edo asko dakitela. Gallupen mundu inkestak erakusten duenez, populazio globalak EAEkoak baino zientzia eta teknologiari buruzko ezagutza-maila handiagoa aitortzen du; hala, % 47k uste dute asko edo dezente dakitela, eta % 49k, berriz, gutxi edo batere ez.

Herritarrek oso argi dute 'kontinenteak mugitzen aritu dira milioika urtez eta etorkizunean ere mugitzen jarraituko dute' esaldia egia dela (%89), eta, aitzitik, 'klima-aldaketa, gehienbat, ziklo naturalek eragiten dutela, giza jarduerak baino gehiago' (%75) eta 'lehen gizakiak eta dinosauroak garai berean bizi izan ziren' (%72) faltsuak direla. Ez dute hain argi 'antibiotikoen birusek zein bakterioek sortutako infekzioak sendatzen dituzte' gezurra dela (%53) eta ezta 'laser-izpiek soinu-uhinen kontzentrazioaren bidez funtzionatzen dute' esaldia ere gezurra dela (%36).

Euskadiko herritarren ezagutza zientifikoaren maila Europar Batasuneko batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da lehen bi baieztapenetan, antibiotikoen eraginari dagokionez antzekoa eta laser-izpien funtzionamenduari dagokionez txikiagoa.

Biztanleria banatuta dago Internet bidezko kudeaketak egiteko teknologia berrien erabileran duten gaitasunari edo prestakuntzari dagokionez: %48k uste dute gaitasun handia edo nahikoa dutela, %22k gaitasun pixka bat dutela eta %29k gutxi edo batere ez. Pixka bat gehiago dira gailu elektronikoen berriak erabiltzeko gaitasun handia edo nahikoa dutela uste dutenak (% 51), %25ek gutxi edo batere ez, eta % 23k zertxobait.

Adinean aurrera egin ahala, nabarmen jaisten da teknologia berriak erabiltzeko gai izatearen pertzepzioa, bai kudeaketak egiteko, bai gailu teknologikoen berriak erabiltzeko. Aldiz, ikasketa-mailak gora egin ahala, gero eta gehiago dira erabiltzeko gai direla uste dutenak. Generoen arteko aldea ere sumatzen da: gizonak emakumeak baino trebatuagoak sentitzen dira.

INPAKTU ZIENTIFIKO ETA TEKNOLOGIKOEI BURUZKO IKUSPEGIAK

Zientzia eta teknologia onuragarriak dira eta etorkizunean inpaktu positiboak izango ditu

Herritar gehienek (%58) uste dute zientziaren eta teknologiaren onurak kalteak baino handiagoak direla, baina elkarrizketatuen %11k uste dute kalteak onurak baino handiagoak direla. Gainera, laurden batek baino gutxiagok (%23) adierazten dute oreka dagoela zientziak eta teknologiak eragindako onuren eta kalteen balantzean.

2006tik aurrera egindako azterlan bakoitzean onurak kalteak baino handiagoak direla uste dutenen ehunekoa haziz joan da: %39koa zen 2006an, %51koa 2017an eta gaur egun %58.

Espainiarekin alderatuta, onurak kalteak baino handiagoak direla uste dutenen ehunekoa handiagoa da Euskadin (%58 eta %46, hurrenez hurren).

Herritarren gehiengoak uste du hainbat teknologia berrik eragin positiboa izango dutela datozen 20 urteetan, hala-nola: energia eolikoa (%87), informazioaren eta komunikazioaren teknologia (%80), bioteknologia eta ingeniariaren genetika (%79), nanoteknologia (%67) eta adimen artifiziala (%62). Ez dira hain argi ikusten espazioaren esplorazioaren ondorio positiboak (%39).

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN GOBERNANTZA

Osasunak eta enpleguak behar dute izan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren lehentasunak

Gehiengoa ados dago ondoko baieztapenekin: 'legeak eta arauak egitean, balioak ezagutza zientifikoak bezain garrantzitsuak dira' (%78 gehienbat ados, %52 ziren 2017an), 'diru publikoarekin finantzaturako ikerketaren emaitzak herritarren eskura jarri behar dira doan Interneten' (%76) eta 'zientzia eta teknologiarekin lotutako interes orokorreko gaiak adituen esku uztea da onena' (%74, %59 2017an). Akordio zabala dago, halaber, 'teknologia berriei ez zaie mugarik jarri behar, zientifikoki frogatu arte kalte larriak sortu ahal dizkiela gizakiei edo ingurumenari' (%62, %36 2017an), eta murriztagoa 'ez litzateke mugarik egon behar zientzian ikertu ahal izateko' (%44) esaldiekin.

Herritarren iritziz, 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren lehentasuneko erronkak honako hauek izan beharko lituzke: osasuna (%81), enplegua (%42), energia eta klima-aldaketa (%38), genero-berdintasuna (%23) eta, azkenik, eraldaketa digitala (%7).

ZIENTZIALARIEI BURUZKO IRITZIAK

Ikerlarien lanbidearen irudiak gutxi erakartzen du

Irudi anibalentea du ikertzailearen lanbideak: %65ek uste dute norberarentzat aberasgarria dela; %45ek oso erakargarria dela gazteentzat, %44k, berriz, ez dela oso erakargarria haietentzat; %34k uste dute aukera berberak eskaintzen dizkiela gizonei eta emakumeei, %47k, ordea, ez dizkiela eskaintzen; %22k aitorten sozial altua duela diote, eta %69k, berriz, ez duela halakorik; soilik %10ek ongi ordaindua dagoela eta %67k, berriz, gaizki ordaindua dagoela.

Lanbideari buruz hautemandako irudia, oro har, negatiboa da Euskadin Espainian baino, baina gehiago dira norberarentzat lanbide aberasgarria dela uste dutenak (%65 Euskadin, %59ren aldean).

Biztanleen %77k diote 'zientzian eta teknologian aritzen diren langileen arteko genero berdintasunak enpresa onurak eta ekonomia hobetuko lituzke'. Iritzi hori zabalduago dago Euskadin EBko beste edozein herrialdetan baino, Zipren izan ezik.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.200 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm\% 3,1$ koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2022ko otsailaren 7a eta 11a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>